Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko ekainaren 6a, osteguna — 106 — Jueves, a 6 de junio de 2019

## GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK

## 1

## DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

### GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*261/2019 Foru Agindua, maiatzaren 30ekoa, zeinaren bidez onartzen baita 126 eredua, mota guztietako finantza entitateetako kontuetatik eratorritako kontraprestazioagatik lortzen diren errentak edo etekinak direla-eta, aktibo finantzarioen gaineko eragiketetan oinarritutakoak barne, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, sozietateen gaineko zergan eta establezimendu iraunkorra duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan egin beharreko atxikipenak eta konturako sarrerak aitortu eta ordaintzekoa.*

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 106. eta 114. artikuluetan, eta, orobat, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 130. artikuluan, ezartzen da zerga horien kontura atxikipenak eta konturako sarrerak egiteko obligazioa dagoela erregelamenduz ezarriko den kopuruan, eta kasuan kasuko zenbatekoa Gipuzkoako Foru Aldundiari ordaindu beharko zaiola erabakitzen den modu eta kasuetan.

Era berean, abenduaren 10eko 16/2014 Foru Arauak, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarenak, 23. artikuluan dio establezimendu iraunkorrek zerga horren likidazioaren konturako ordainketak egin behar dituztela, sozietateen gaineko zergaren Gipuzkoako araudia aplikatzen duten entitate egoiliarrentzat ezarritako eran. Halaber dio establezimendu horiek atxikipenak eta konturako sarrerak egin beharko dituztela, sozietateen gaineko zergaren Gipuzkoako araudia aplikatzen duten entitate egoiliarrentzat ezarritako eran.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduak, urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onartuak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako ordainketen erregelamenduzko garapena jaso zuen VII. tituluan.

Titulu horren barruan ageri den 120. artikuluak besteak beste esaten du atxikipenak eta konturako sarrerak egitera behartuta dagoen subjektu pasiboak hiru hilabetean behin aurkeztu behar duela aurreko lehen hiruhileko naturalean atxikitako zenbatekoen eta kontura sartutako kopuruen aitorpena, eta zenbatekoa Gipuzkoako Foru Aldundian ordaindu.

Dena den, aurreko paragrafoan aipatutako aitorpena eta ordainketa hilean behin egingo dira, aurreko lehen hilabetean egindako atxikipenei eta konturako sarrerei dagokienez, baldin eta atxikitzaileak eta kontura sartzera behartutakoak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuak 71. artikuluaren 3. apartatuko 1. eta 2. zenbakietan jasotzen dituen egoeretan badaude.

Atxikitzera edo kontura sartzera behartutakoak administrazio publikoak badira, Gizarte Segurantza barne, eta ekitaldia hasi baino lehen azken onartu duten urteko aurrekontua 6 milioi eurotik gorakoa bada, aurreko paragrafoan xedatutakoa berdin apli-

### DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*Orden Foral 261/2019 de 30 de mayo, por la que se aprueba el modelo 126 de declaración-documento de ingreso de retenciones e ingresos a cuenta del impuesto sobre la renta de las personas físicas, del impuesto sobre sociedades y del impuesto sobre la renta de no residentes (establecimientos permanentes), en relación con las rentas o rendimientos obtenidos por la contraprestación derivada de cuentas en toda clase de instituciones financieras, incluyendo las basadas en operaciones sobre activos financieros.*

Los artículos 106 y 114 de la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y el artículo 130 de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, establecen, respectivamente, la obligación de practicar retenciones e ingresos a cuenta de estos impuestos en la cantidad que se determine reglamentariamente y de ingresar su importe en la Diputación Foral de Gipuzkoa, en los casos y en la forma que se establezcan.

Igualmente, el artículo 23 de la Norma Foral 16/2014, de 10 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, dispone que los establecimientos permanentes estarán obligados a efectuar pagos a cuenta de la liquidación del Impuesto en los mismos términos que las entidades residentes sometidas a la normativa tributaria guipuzcoana reguladora del impuesto sobre sociedades y que estarán, asimismo, obligados a practicar retenciones e ingresos a cuenta en los mismos términos que las entidades residentes sometidas a la normativa guipuzcoana reguladora del impuesto sobre sociedades.

El desarrollo reglamentario de la regulación de los pagos a cuenta del impuesto sobre la renta de las personas físicas se ha efectuado en el título VII del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado por el Decreto Foral 33/2014, de 14 de octubre.

El artículo 120 contenido en dicho título dispone, entre otras cuestiones, que el sujeto obligado a retener y practicar ingresos a cuenta deberá presentar trimestralmente declaración de las cantidades retenidas y de los ingresos a cuenta practicados que correspondan por el trimestre natural inmediato anterior e ingresar su importe en la Diputación Foral de Gipuzkoa.

No obstante, la declaración e ingreso a que se refiere el párrafo anterior se efectuará mensualmente en relación con las cantidades retenidas y los ingresos a cuenta efectuados que correspondan por el mes inmediato anterior, cuando se trate de retenedores u obligados en los que concurran las circunstancias a que se refiere el artículo 71.3.1.º y 2.º del Real Decreto 1.624/1992, de 29 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Lo dispuesto en el párrafo anterior resultará igualmente aplicable cuando se trate de retenedores u obligados a ingresar a cuenta que tengan la consideración de Administraciones públicas, incluida la Seguridad Social, cuyo último presupuesto

EK\CV GAO-I-2019-03674

katuko da kontzeptu hauek direla-eta atxiki edo kontura sartzen diren zenbatekoei dagokienez: jarduera profesionalen etekinak, nekazaritza eta abeltzaintza jardueren etekinak, basogintza jardueren etekinak, inbertsio kolektiboko erakundeen kapital edo ondarearen akzio edo partaidetzak eskualdatu edo itzultzeagatik lortutako ondare irabaziak, eta harpidetza eskubideen eskualdaketatik ondorioztatutakoak.

Atxikitzaileak edo kontura sartzera behartutakoak aitorpen negatiboa aurkeztuko du baldin eta, atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako errentak ordaindu arren, haien zenbatekoa dela-eta inolako atxikipenik edo konturako sarrerarik egin ez badu. Aitorpen negatiborik ez da zertan aurkeztu, aitorpenaren zergaldian atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako errentarik ordaindu ez denean.

Aurrerago, artikuluak dio aitorpenak Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak ezartzen dituen ereduetan egingo direla, foru diputatuak esku izango duela erabakitzeko 120. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako datuetatik zeintzuk jarri behar diren aitorpenetan, eta atxikitzaileak edo kontura sartzera behartutakoak bere aitorpenetan datu horiek guztiak betetzeko obligazioa duela.

Aitorpena eta ordainketa Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabakitako moduan, tokian eta epeetan egingo dira. Orobat, foru diputatuak ezarri ahal izango du zer kasu eta zein baldintzatan, eta nola, non eta zein epetan aurkeztuko diren bide telematikoz artikulu horretan aipatzen diren aitorpenak.

Sozietateen gaineko zergari dagokionez, konturako ordainketen araubidearen erregelamenduzko garapena ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretuaren bidez onartutako Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduko V. tituluaren III. kapitulua jasotzen da. Kapitulu horretan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduak ezarritako era berean arautzen dira atxikitzaileen eta kontura sartzera behartutakoen betebehar formalak.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadun diren establezimendu iraunkorrei dagokienez, atxikipenen eta konturako sarreren erregelamenduzko garapena jasota dago maiatzaren 17ko 11/2016 Foru Dekretuak onartutako Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduan. Bertan ezarritakoaren arabera, establezimendu iraunkorrak behartuta daude konturako ordainketak egitera, sozietateen gaineko zergaren Gipuzkoako araudiak zerga horren zergadunentzat ezarritako kasu eta baldintza berdinetan.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, sozietateen gaineko zergaren erregelamenduan xedatutakotik ondorioztatzen diren kasuetan ez ezik, honako kasuan ere ez da egin beharko atxikipenik edo konturako sarrerarik: Espainiako lurraldean egoitzarik ez duen finantza entitate baten establezimendu iraunkorrarentzat sarrera diren interes eta komisioak jasotzen direnean, baldin eta establezimendu horrek ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretuak onartutako Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduako 50. artikuluaren 3. zenbakian aipatutako entitateen berezko jarduerak garatzen baditu eta lortutako interes eta komisioak establezimendu iraunkorrak emandako maileguen ondorio badira, salbu eta 3. zenbaki horretako bigarren paragrafoan aipatzen diren errentak direnean.

Foru agindu honetan onartzen den 126 ereduaren bidez atxikipenari eta konturako sarrerari lotuta dauden errenten barruan sartzen dira mota guztietako finantza entitateetako kontuetatik eratorritako kontraprestazioa dela-eta (izendapena edo izaera edozein dela ere) lortzen diren kapital higigarriaren etekinak, aktibo finantzarioen gaineko eragiketetan oinarritutakoak barne, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadu-

anual aprobado con anterioridad al inicio del ejercicio supere la cantidad de 6 millones de euros, en relación con las cantidades retenidas y los ingresos a cuenta correspondientes a los rendimientos de actividades profesionales, actividades agrícolas y ganaderas, de actividades forestales, y las ganancias patrimoniales obtenidas como consecuencia de las transmisiones o reembolsos de acciones y participaciones representativas del capital o patrimonio de las instituciones de inversión colectiva, así como las derivadas de la transmisión de los derechos de suscripción.

El retenedor u obligado a ingresar a cuenta presentará declaración negativa cuando, a pesar de haber satisfecho rentas sometidas a retención o ingreso a cuenta, no hubiera procedido, por razón de su cuantía, a la práctica de retención o ingreso a cuenta alguno. No procederá presentación de declaración negativa cuando no se hubieran satisfecho en el período de declaración rentas sometidas a retención e ingreso a cuenta.

Se establece, así mismo, que las declaraciones se realizarán en los modelos que establezca la diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, quien podrá determinar cuales de los datos previstos en el apartado 2 de dicho artículo 120 deben incluirse en las declaraciones, estando obligado el retenedor u obligado a ingresar a cuenta a cumplimentar la totalidad de los datos así determinados y contenidos en las declaraciones que le afecten.

La declaración e ingreso se efectuará en la forma, lugar y plazos que determine la diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, quien podrá establecer los supuestos y condiciones, así como la forma, lugar y plazos de presentación de las declaraciones a que se refiere el susodicho artículo por medios telemáticos.

Por lo que se refiere al impuesto sobre sociedades, el desarrollo reglamentario del régimen de pagos a cuenta se contiene en el capítulo III del título V del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, aprobado por el Decreto Foral 17/2015, de 16 de junio, regulando las obligaciones formales de los retenedores y los obligados a ingresar a cuenta en similares términos que los previstos en el reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas antes mencionado.

En relación con los establecimientos permanentes que sean contribuyentes por el impuesto sobre la renta de no residentes, el desarrollo reglamentario del sistema de retenciones e ingresos a cuenta se contiene en el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, aprobado por el Decreto Foral 11/2016, de 17 de mayo, y establece que los establecimiento permanentes quedarán obligados a efectuar pagos a cuenta, en los mismos supuestos y condiciones que los establecidos en la normativa guipuzcoana reguladora del impuesto sobre sociedades para los contribuyentes por este impuesto.

No obstante lo previsto en el párrafo anterior, no existirá obligación de retener ni de ingresar a cuenta, además de en los casos que resulten de la aplicación de lo dispuesto en el propio reglamento del impuesto sobre sociedades, respecto de los intereses y comisiones que constituyan ingreso de un establecimiento permanente de una entidad financiera no residente en territorio español, que desarrolle las actividades propias de las entidades a que se refiere el número 3.º) del artículo 50 del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, aprobado por el Decreto Foral 17/2015, de 16 de junio, cuando sean consecuencia de préstamos realizados por dicho establecimiento permanente, salvo que se trate de las rentas a que se refiere el párrafo segundo del citado número 3.º).

Las rentas sujetas a retención e ingreso a cuenta, objeto del modelo 126 que se aprueba por la presente orden foral, comprenden los rendimientos del capital mobiliario obtenidos por la contraprestación, cualquiera que sea su denominación o naturaleza, derivada de cuentas en toda clase de instituciones financieras, incluyendo las basadas en operaciones sobre activos financieros, obtenidos por los contribuyentes por el im-

EK\CV GAO-I-2019-03674

nek, sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboek eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek (establezimendu iraunkorrak) lortu dituztenean.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

*1. artikulua. 126 eredua onartzea.*

Onarturik geratzen da 126 eredua, «Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga (establezimendu iraunkorrak). Mota guztietako finantza entitateetako kontuetatik eratorritako kontraprestazioagatik lortzen diren errentak eta kapital higigarriaren etekinak, aktibo finantzarioen gaineko eragiketetan oinarritutakoak barne. Atxikipenak eta konturako sarrerak. Aitorpena-ordainketa agiria» izenekoa. Haren edukia bat dator foru agindu honen eranskin gisa ageri diren diseinu logikoetan eskatzen den informazioarekin.

*2. artikulua. 126 eredua aurkeztera behartuak.*

Mota guztietako finantza entitateetako kontuetatik eratorritako kontraprestazioagatik errentak edo kapital higigarriaren etekinak (aktibo finantzarioen gaineko eragiketetan oinarritutakoak barne) ordaintzen dituzten atxikitzaileek eta kontura sartzera behartutakoek aurkeztu behar dute 126 eredua, eta ondorioztatzen den zenbatekoa ordaindu.

*3. artikulua. 126 eredua aurkezteko modua.*

1. 126 eredua bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu behar da.

2. Aurkezpen elektronikoa Internet bidez egingo da, eta, horretarako, interesdunak «Zergabidea» plataformara jo beharko du, aitorpenak eta zerga arloko idatziak prestatu eta aurkezteko eratu den webgunera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan kokatuta dagoen https://egoitza.Gipuzkoa.eus helbidean sartuta.

126 eredua prestatu eta aurkezteko erabil daitekeen laguntza programa eta, orobat, beste programa batekin prestatutako aitorpenaren fitxategia bidaltzeko funtzionalitatea, «Zergabidea» plataforman eskura daitezke. Aitorpena beste programa batekin prestatzen bada, nahitaezkoa da fitxategiak foru agindu honen II. eranskinean jasota dagoen diseinu fisiko-logikoa betetzea.

3. Eredua internet bidez aurkezteko, bitarteko elektronikoak erabilita, aipatu den ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduan jasotako prozedurari jarraitu beharko zaio.

*4. artikulua. 126 eredua aurkeztu eta ordaintzeko epea.*

1. Apiril, uztail, urri eta urtarrilaren lehen hogeita bost egun naturalen barruan aurkeztu behar da 126 eredua, eta dagokion ordainketa egin, hurrenez hurren, urte naturalaren lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren hiruhilekoengatik atxiki eta kontura sartutako kopuruei dagokienez.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, apartatu horretan aipatutako aitorpena eta ordainketa hilean behin egingo dira, aurreko lehen hilabetean egindako atxikipenei eta konturako sarrerei dagokienez, baldin eta atxikitzaileak eta kontura sartzera behartutakoak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuak 71. artikuluaren 3. apartatuko 1. eta 2. zenbakietan jasotzen dituen egoeretan badaude.

Atxikitzera edo kontura sartzera behartutakoak administrazio publikoak badira, Gizarte Segurantza barne, eta ekitaldia hasi baino lehen azken onartu duten urteko aurrekontua 6 milioi eurotik gorakoa bada, aurreko paragrafoan xedatutakoa

puesto sobre la renta de las personas físicas y las rentas de la misma procedencia obtenidas por los sujetos pasivos del impuesto sobre sociedades y por los contribuyentes por el impuesto sobre la renta de no residentes (establecimientos permanentes).

En su virtud,

DISPONGO

*Artículo 1. Aprobación del modelo 126.*

Se aprueba el modelo 126 «Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, Impuesto sobre Sociedades e Impuesto sobre la Renta de no Residentes (establecimientos permanentes). Retenciones e Ingresos a cuenta sobre rendimientos del capital mobiliario y rentas obtenidos por la contraprestación derivada de cuentas en toda clase de instituciones financieras, incluyendo las basadas en operaciones sobre activos financieros. Declaración-documento de ingreso», cuyo contenido se ajusta a la información requerida en los diseños lógicos que se incluyen como anexo de la presente orden foral.

*Artículo 2. Obligados a presentar el modelo 126.*

El modelo 126 deberá ser presentado, ingresando el importe resultante del mismo, por los retenedores y obligados a ingresar a cuenta que satisfagan las rentas o rendimientos del capital mobiliario obtenidos por la contraprestación derivada de cuentas en toda clase de instituciones financieras, incluyendo las basadas en operaciones sobre activos financieros.

*Artículo 3. Forma de presentación del modelo 126.*

1. La presentación del modelo 126 deberá efectuarse por medios electrónicos.

2. La presentación electrónica deberá realizarse a través de Internet, para lo cual el interesado deberá acceder a la plataforma «Zergabidea» para la elaboración y presentación de declaraciones y escritos tributarios disponible en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, a la cual se accederá a través de la dirección electrónica https://egoitza.Gipuzkoa.eus.

El programa de ayuda para la elaboración y presentación del modelo 126 se encuentra disponible en la plataforma «Zergabidea», así como la funcionalidad para el envío del fichero correspondiente a la declaración que se haya elaborado con otro programa informático, siempre que dicho fichero se ajuste al diseño físico y lógico que se especifica en el anexo II de esta orden foral.

3. La presentación por medios electrónicos a través de Internet se efectuará siguiendo el procedimiento previsto en la referida Orden Foral 320/2017, de 28 de junio.

*Artículo 4. Plazo de presentación e ingreso del modelo 126.*

1. La presentación del modelo 126 y el ingreso del importe resultante del mismo, se efectuará en los veinticinco primeros días naturales de los meses de abril, julio, octubre y enero, en relación con las cantidades retenidas y los ingresos a cuenta efectuados por el primer, segundo, tercer y cuarto trimestre del año natural, respectivamente.

2. No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, la declaración e ingreso a que se refiere el párrafo anterior se efectuará mensualmente en relación con las cantidades retenidas y los ingresos a cuenta efectuados que correspondan por el mes inmediato anterior, cuando se trate de retenedores u obligados en los que concurran las circunstancias a que se refiere el artículo 71.3.1.º y 2.º del Real Decreto 1624/1992, de 29 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Lo dispuesto en el párrafo anterior resultará igualmente aplicable cuando se trate de retenedores u obligados a ingresar a cuenta que tengan la consideración de Administraciones públicas, incluida la Seguridad Social, cuyo último presupuesto


EK\CV GAO-I-2019-03674

berdin aplikatuko da kontzeptu hauek direla-eta atxiki edo kontura sartzen diren zenbatekoei dagokienez: jarduera profesionalen etekinak, nekazaritza eta abeltzaintza jardueren etekinak, basogintza jardueren etekinak, inbertsio kolektiboko erakundeen kapital edo ondarearen akzio edo partaidetzak eskualdatu edo itzultzeagatik lortutako ondare irabaziak, eta harpidetza eskubideen eskualdaketatik ondorioztatutakoak.

*5. artikulua. 126 ereduaren ordainketa egiteko modua.*

1. 126 eredua Internet bidez aurkeztuz gero, autolikidazioen ordainketak hiru modutan egin ahal izango dira: bankuan helbideratuz, Ordainketa-pasabidea erabiliz, edo entitate laguntzailean ordainketa-gutuna aurkeztuz, hori guztia, ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zergen Foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeko obligazioa arautzen duenak, 4. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

2. Banku batean helbideratuz gero, ordainketa kargatuko da zergadunak aurrez adierazitako kontuan, betiere aintzat hartuta kontu horrek zerga-bilketan laguntzeko baimenduta dagoen entitate batean irekita egon behar duela. Ondorio horietarako, Gipuzkoako Zerga-bilketa Erregelamenduak, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 30. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

Zergapekoak IBAN kodea adierazi behar du (Banku Kodearen Nazioarteko Kodea), zerga zorraren ordainketa zer kontutan kargatuko den identifikatzeko.

3. Diru-sarrera egiteko ordainketa-pasabidea erabiltzen bada, aplikagarria izango da Gipuzkoako Foru Aldundiko zuzenbide publikoko diru-sarrerak ordainketa-pasabidearen bitartez ordaintzeko era arautzen duen abenduaren 11ko 1074/2008 Foru Aginduak ezarritakoa. Autolikidazioa ongi transmititutakoan egin ahal izango da diru-sarrera.

4. Ordainketa-gutuna aukeratzen bada, diru-sarrera egingo da ordainketa-gutuna «Zergabidea» plataformatik jaitsiz eta 2. apartatuan adierazitako entitate laguntzaileetako baten bitartez ordainduz, banka elektronikoa, kutxazaina edo leihatila erabilita.

*Xedapen indargabetzailea.*

Foru agindu hau indarrean jartzen denetik aurrera, indargabeturik geratuko dira foru agindu honetan xedatutakoarekin bat ez datozen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

Indargabeturik gertatzen da, bereziki, azaroaren 12ko 585/2014 Foru Agindua, aitorpen-likidazio jakin batzuk bide telematikoz aurkezteko prozedura arautzen duen otsailaren 25eko 165/2004 Foru Agindua aldatzen duena.

*Azken xedapen bakarra.*

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetan jarriko da indarrean.

Donostia, 2019ko maiatzaren 30a.—Jabier Larrañaga Garmendia, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(3674)

anual aprobado con anterioridad al inicio del ejercicio supere la cantidad de 6 millones de euros, en relación con las cantidades retenidas y los ingresos a cuenta correspondientes a los rendimientos de actividades profesionales, actividades agrícolas y ganaderas, de actividades forestales, y las ganancias patrimoniales obtenidas como consecuencia de las transmisiones o reembolsos de acciones y participaciones representativas del capital o patrimonio de las instituciones de inversión colectiva, así como las derivadas de la transmisión de los derechos de suscripción.

*Artículo 5. Forma de ingreso del modelo 126.*

1. Los ingresos correspondientes a las autoliquidaciones del modelo 126 presentados por Internet podrán realizarse mediante domiciliación bancaria, a través de la Pasarela de Pagos o mediante la obtención de una carta de pago, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 4 de la Orden Foral 320/2017, de 28 de junio, por la que se regula la obligación de relacionarse con la Administración tributaria foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa por medios electrónicos.

2. La domiciliación bancaria se realizará con cargo a una cuenta de titularidad del contribuyente, abierta en una entidad colaboradora en la gestión recaudatoria de los tributos que indique el contribuyente en la autoliquidación presentada. A tales efectos será de aplicación lo dispuesto en el artículo 30 del Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por el Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto.

El obligado tributario hará constar el Código Internacional de Cuenta Bancaria (IBAN) que identifique la cuenta a la que deberá cargarse el pago de la deuda tributaria.

3. El ingreso a través de la Pasarela de Pagos se realizará con arreglo al procedimiento previsto en la Orden Foral 1074/2008, de 11 de diciembre, por la que se regula el pago de ingresos de derecho público de la Diputación Foral de Gipuzkoa a través de la Pasarela de Pagos. Dicho ingreso se podrá efectuar una vez se haya transmitido válidamente la autoliquidación correspondiente.

4. El ingreso mediante carta de pago se realizará obteniendo la misma desde la plataforma de «Zergabidea» y realizando el ingreso a través de una entidad colaboradora de las indicadas en el apartado 2 anterior, utilizando para ello los canales de la banca electrónica, el cajero o la ventanilla.

*Disposición derogatoria.*

A partir de la entrada en vigor de la presente orden foral quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo previsto en la presente orden foral.

En particular, queda derogada la Orden Foral 585/2014, de 12 de noviembre, por la que se modifica la Orden Foral 165/2004, de 25 de febrero, por la que se regula el procedimiento para la presentación por vía telemática de determinadas declaraciones-liquidaciones, en lo que se refiere al modelo 126.

*Disposición final única.*

La presente Orden Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 30 de mayo de 2019.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Jabier Larrañaga Garmendia.

(3674)

ERANSKINA (126 EREDUA) / ANEXO (MODELO 126)

| *Azalpena* | *Descripción* | *Datu mot. / T. Dat* | *Luzer. / Long* | *Leh. pos. / Pos. Ini.* | *Azk. pos. / Pos. fin* |
|---|---|---|---|---|---|
| Aurkezlearen IFZ | NIF Presentador | Alfn | 9 | 1 | 9 |
| Aitortzailearen IFZ | NIF Declarante | Alfn | 9 | 10 | 18 |
| Ekitaldia | Ejercicio | Num | 4 | 19 | 22 |
| Eredua | Modelo | Num | 3 | 23 | 25 |

EK\CV GAO-I-2019-03674

| *Azalpena* | *Descripción* | *Datu mot. / T. Dat* | *Luzer. / Long* | *Leh. pos. / Pos. Ini.* | *Azk. pos. / Pos. fin* |
|---|---|---|---|---|---|
| Epealdia | Período | Alfn | 2 | 26 | 27 |
| Erregistroaren kodea | Código registro | Num | 2 | 28 | 29 |
| Bezeroaren kontu kodea | Código Cuenta Cliente | Num | 20 | 30 | 49 |
| IBAN kontu kodearen lehen lau posizioak (ESXX) | Cuatro primeras posiciones del código de cuenta IBAN (ESXX) | Alfn | 4 | 50 | 53 |
| Atxikipenari lotutako etekinak | Rendimientos Sujetos a Retención | | | | |
| Diruzko errentak edo etekinak | Rentas o Rendimientos Dinerarios | | | | |
| Jasotzaile kopurua | Número perceptores | Num | 7 | 54 | 60 |
| Oinarria | Base | Num | 13 | 61 | 73 |
| Atxikipenak | Retenciones | Num | 13 | 74 | 86 |
| Konturako sarrerari lotutako etekinak | Rendimientos Sujetos a Ingreso a Cuenta | | | | |
| Gauzazko errentak edo etekinak | Rentas o Rendimientos en Especie | | | | |
| Jasotzaile kopurua | Número perceptores | Num | 7 | 87 | 93 |
| Balorazioa | Valoración | Num | 13 | 94 | 106 |
| Konturako sarrerak | Ingresos a Cuenta | Num | 13 | 107 | 119 |
| Aldizkakotasun eta erregularizazioa | Periodificación y Regularización | | | | |
| Errentak edo etekinak | Rentas o Rendimientos | | | | |
| Aurreko ekitaldietako sarrerak | Ingresos Ejercicios anteriores | Num | 13 | 120 | 132 |
| Erregularizazioa | Regularización | Num | 13 | 133 | 145 |
| Ordaindu beharrekoa, guztira | Total a Ingresar | Num | 13 | 146 | 158 |

EK\CV GAO-I-2019-03674